

PERTSONAL sanitarioaren txertaketa 21

SARRERA

Sanitatearen munduan lan egiten duten profesionalek arrisku-talde bat oastzen dute, izan ere talde horretan gaixotasun infekzioso jakin batzuk harrapatzeko eta transmititzeko arriskua gehitu egiten baita. Eta gaitz horietako asko prebenitu daitezke modu eraginkorrean, immunizazio aktiboaren bidez.

Txertaketa-programen helburuak pertsonal sanitarioaren artean, ondorengo puntuetara bideratuak egon behar dute:

- a) Langileek pazienteek transmititutako, eta txerto bidez prebenituak izan daitezkeen infekzioen aurrean duten babes gehitzea.
- b) Langileak atenditzen dituzten pazienteentzat osasun-zentroko beste langileentzat edo are komunitateko edozein pertsonarentzat infekzio-iturri izan daitezela ebitatzea.
- c) Immunogutxitze-egoeran dagoen edota oinarritzko gaixotasun kronikoak dituen langilearen osasuna gorde eta babestea. Izan ere horrelako pertsona batek kutsatzeko arrisku gehiago baitauka, eta baita bere lan-tokian zenbait gaixotasun infekzioso harrapatzetik etor daitezkeen konplikazioak jasateko ere.

TXERTAKETA-PAUTAK PERTSONAL SANITARIOARENTZAT

Bi talde handitan bana daitezke:

- a) bereziki gomendatzen diren txertoak.
- b) egoera berezietan pertsonal sanitarioak eskura dituen beste txerto batzuk.

A. Bereziki gomendatzen diren txertoak

Kasu hauetan gaitza harrapatzeko arrisku handiagoa detektatu da pertsonal sanitarioaren baitan, pazienteei ere gaixotasuna transmititzeko aukera ahaztu gabe.

B Hepatitisa

Indikazioak

- a) Odolaren eta gorputz-jariakinen esposizio-arriskua duen pertsonal sanitarioa.
- b) Exposizio-arriskua duten osasun-zentroetako beste langile batzuk.
- c) HBsAg positiboa den paziente baten odola, esposizioa perkutaneo edo mukokutaneoarekin B hepatitisaren birusaren aurrean sentibera den pertsonal sanitarioa.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Itxuraz ez du kontrako efekturik eragiten fetuarentzat.
- Ez dago kontraindikaturik haurduntzan.
- Aldez aurreko erreakzio anafilaktikoaren historia.

Txertaketa-pauta

- Muskulu baretik deltoidean.
- Aurreneko bi dosiak 4 asteko tarteararekin, eta 3. dosia bigarrena jarri eta handik 5 hilabetera. Normalean, ez da oroitzapeneko dosirik behar, baina esposizioaren arriskua handiagoa den egoera jakin batzuetan, indibidualki baloratu beharko da.

Txertaketaren ondorengo 1-2. hilabeteetan erantzun immunologikoa konprobatzea gomendatzen da.

Gripea

Indikazioak

- a) Arrisku altuko pazienteekin harremanetan dagoen pertsonal sanitarioa.
- b) 65 urte edo gehiagoko pertsonal sanitarioa eta/edo arriskuko baldintzak dituena.
- c) Zentro sanitarioetako langileak txertatzea gomendatzen da.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Arrautzarekiko hipersentikortasun-historia.

Txertaketa-pauta

- Muskulubaretik. Urteko dosi bakarra.

Elgorria

Indikazioak

Pertsonal sanitarioa, baldin eta:

- a) Urtebete egin ondotik 2 txerto-dosi hartu izanaren frogarik ez badu.
- b) Elgorria jasan izanaren diagnostiko medikorik ez badu.
- c) Serologia bidezko immunitatearen ebidentziarik ez badago.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Haurduntza.
- Immunodeprimituak: hainbat arrazoi direla medio: immunitate-akatsak edo eskasiak, GIB infekzioa (eta hemen sartzen da immunogutxitze larria duen pertsonal GIB positiboa), leuzemia, linfoma, tumoreak edo terapia immunogutxitzailea (kortikoideak, zitostatikoak, erradiazioak, ...).
- Neomizinarekiko erreakzio anafilaktikoaren historia.
- Berriki immunoglobulinak hartu izana (3 hilabete itxaron behar dira, gutxienez).

Txertaketa-pauta

- Azalpeko bidetik: Bi dosi, batetik bestera gutxienez ere 1 hilabeteko tar-tearekin.
- Hartzailea errubeolarekiko eta/edo parotiditisarekiko sentibera baldin bada, txerto hirukoitz birikoa administratu behar da.

Parotiditisa

Indikazioak

Pertsonal sanitarioa, baldin eta

- Urtebete egin ondotik 2 txerto-dosi hartu izanaren frogarik ez badago.
- Parotiditisa jasan izanaren diagnostiko medikorik ez badago.
- Serologia bidezko immunitatearen ebidentziarik ez badago.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Haurduntza.
- Immunodeprimituak: eskasia immunitarioengatik, GIB infekzioagatik, leuzemia, linfoma, tumoreak edo terapia immunogutxitzaileagatik (kortikoi-deak, zitostatikoak, erradiazioak...).
- Neomizinarekiko erreakzio anafilaktikoaren historia.

Txertaketa-pauta

- Azalpeko bidetik. Dosi bakarra, ez da oroitzapenik behar.
- Hartzailea errubeola eta/edo elgorriarekiko sentibera baldin bada, txerto hirukoitz birikoa administratu behar da.

Errubeola

Indikazioak

Pertsonal sanitarioa (gizonezkoak eta emakumeak), baldin eta:

- Urtebete egin ondotik 2 txerto-dosi hartu izanaren frogarik ez badago.
- Serologia bidezko immunitatearen ebidentziarik ez badago.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Haurduntza.
- Immunodeprimituak: eskasia immunitarioengatik, GIB infekzioagatik, leuzemia, linfoma, tumoreak edo terapia immunogutxitzaileagatik (kortikoi-deak, zitostatikoak, erradiazioak...).
- Neomizinarekiko erreakzio anafilaktikoaren historia.

Txertaketa-pauta

- Azalpeko bidetik. Dosi bakarra, ez da oroitzen behar.
- Hartzailera parotiditisa eta/edo elgorriarekiko sentibera baldin bada, txerto hirukoitz birikoa administratu behar da.

Barizela-Zosterra

Indikazioak

- a) Pertsonal sanitarioa, aurretik barizelaren edota txertaketaren ebidentziarik gabea.
- b) Barizelarekiko sentibera den pertsonalaren esposizio-osteko profilaxia, paziente edo langile infektatu batekin esposizio estua eta luzea eduki duenean, batez ere konplikazioen arrisku handia duena, emakume haurdunak edo immunidepremituak, esate baterako.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Haurduntza.
- Immunodeprimituak: eskasia immunitarioengatik, GIB infekzioagatik, leuzemia, linfoma, tumoreak edo terapia immunogutxitzaileagatik (kortikoi-deak, zitostatikoak, erradiazioak...).
- Neomizinarekiko erreakzio anafilaktikoaren historia.
- Txertaketa ondorengo 6. astea arte ez dira erabili behar salzilatoak.

Txertaketa-pauta

- Azalpeko bidetik. Helduetan 0,5 ml-ko 2 dosi, 4-8 asteko tartearekin dosi batetik bestera.
- Barizela-historiarik gabeko pertsonen % 71-93 immuneak direnez, txertaketa aurreko screening serologikoa izan daiteke eraginkorra kostuari begira.

B. Egoera berezietan pertsonal sanitarioak eskura dituen beste txerto batzuk

BCG (Tuberkulosia)

Indikazioak

Pertsonal sanitarioa, baldin eta bizi den lurraldean:

- a) TBK multiresistentea prebalentea edo nagusia bada.

- b) Infekzioaren probabilitatea oso altua bada. (Adibidez: mikrobiologiako laborategiak).
- c) TBKren kontrolerako hartu diren neurriak ez badira eraginkorrak izan infekzioaren hedapena kontrolatzeko.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Immunodeprimituak: eskasia immunitarioengatik, GIB infekzioagatik, leuzemia, linfoma, tumoreak edo terapia immunogutxitzaileagatik (kortikoi-deak, zitostatikoak, erradiazioak...).
- Haurduntza.
- Txertaketaren aurretik tuberkulina test bat egin behar da.

Txertaketa-pauta

- Bide perkutaneoak. 0,5 ml-ko dosi bakarra, ez da gomendatzen oroitzapeneko dosirik.

A Hepatitis

Indikazioak

- a) A hepatitisaren birusarekin lanean diharduen pertsonal sanitarioa (laborategietan) edo baita birus horrekin infektatua dagoen primateekin ere txertatu egin beharko litzateke.
- b) Epidemietan infektatuen eginkariekin kontaktua eduki duen pertsonal sanitarioaren kasuan indikatua egon daiteke txertoa esposizio-osteko profilaxi bezala.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Anafilaxiaren historia aluminioaren edo 2-fenoxietanolaren aurrean.
- Emakume haurdunen segurtasuna ez dago behar bezala ebaluatua oraindik: fetuarentzako arriskua baxua da seguruenik eta arrisku altuko emakumeen kasuan dagoen A hepatitisaren arriskuarekin ponderatu behar litzateke.

Txertaketa-pauta

- Muskulubarnetik. Bi dosi, 6-12 hilabeteko tartearekin bananduak (marka komertzialaren arabera).

Antimeningokoziko Polisakaridoa (A, C, Y eta W135) eta konjugatua (C)

Indikazioak

- a) Baliagarriak izan daitezke epidemia-egoeretan.
- b) Esposizio-osteko profilaxi bezala, beharrezko arreta-neurriak erabili gabe arnas jariakinekin harreman zuzena eduki duen pertsonalarentzat (adibidez ahoz ahoko berpiztea, intubazio endotrakeala edota orofaringeko hurbileko azterketaren kasuak).

Merkatuan dauden txerto polisakaridoetako batzuk, esate baterako A+C+W135+Y meningokokoaren kontrako txertoa (Menomude izenekoa, Aventis Pasteur laborategikoa) ez dago erregistratua Estatu espainolean, eta atzerriko botiken zerbitzu bidez eskatu behar da.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Ez da ebaluatu txertoaren segurtasuna emakume haurdunentzat.
- Ez administratu haurdunaldian, infekzio-arriskua oso altua den kasuetan izan ezik.

Txertaketa-pauta

- Dosi bat, fabrikatzaileak gomendatutako bolumen eta bidea erabiliz.
- Oraingo ez da ezagutzen oroitzapeneko dosiaren premiarik.

Poliomielitisa

Indikazioak

- a) Birus basatia iraz dezaketen pertsonekin harreman estua duen pertsonal sanitarioa.
- b) Birus basatia eduki dezaketen laginak maneiatu eta erabiltzen dituen laborategiko pertsonala.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Anafilaxiaren historia, estreptomizina edo neomizinarekiko.
- Ez da administratu behar haurdunaldia bitartean

Txertaketa-pauta

- Poliobirus inaktibatua txertoa: azalpeko bidetik; 2 dosi 4-8 asteko tar-tearekin, eta 3. dosi bat bigarrena jarri eta 6-12 hilabetera; oroitzapeneko dosiak izan daitezke txerto inaktibatua edo ahotiko txertoa.
- Txerto inaktibatua: pertsona immunokonprometituentzat edo paziente horiek zaintzen dituen pertsonalarentzat erabiliko da; berehalako babesa behar izanez gero, ahotiko txertoa erabili behar da.

Amorrua

Indikazioak

- a) Amorruren birusarekin edota animalia infektatuekin lanean diharduen pertsonala, diagnostiko edo ikerketa-lanetan.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Haurduntza ez da kontraindikazio bat.
- Immunokonprometituetan eta dosi altuko kortikoideekin egindako tratamenduetan, antigorputz neutralizatzaileen mailak baloratu behar dira txertaketaren ondotik.

- Esposizio-osteko profilaxi bezala, amorruek jota dagoen gizaki batek edota animalia batek hozka egin dion pertsonalarentzat, eta baita harra-mazkak, urratuak, zauriak edota mukosak listuarekin edo bestelako material potentzial infektagarriarekin (esate baterako ehun zerebralarekin) kontaminatuak dituenean.

Txertaketa-pauta

- Lehen-txertaketa, esposizio-aurreko profilaxia:
 - Muskulubarnetik: giza zelula diploideen amorruearen kontrako txertoa, edo amorruearen kontrako txerto xurgatua, 1 ml deltoidean, hiru dosi: 0, 7, 21 edo 28. egunetan.
 - Azalbarnetik: giza zelula diploideen amorruearen kontrako txertoa, 1 ml, 0, 7, 21 edo 28. egunetan.
- Oroitzapeneko dosia. Esposizioa jarraitua edo etengabea baldin bada, oroitzapeneko dosiak eman daitezke, 6-12 hilabeteren buruan, baldin eta antigorputz babesleen maila galdu egin bada.
 - Muskulubarnetik: giza zelula diploideen amorruearen kontrako txertoa edo amorruearen kontrako txerto xurgatua, 0,1 ml deltoidean.
 - Azalbarnetik: giza zelula diploideen amorruearen kontrako txertoa, 0,1 ml.

Tetanosa eta Difteria (Td)

Indikazioak

- Heldu guztiak.
- Tetanosaren profilaxia zaurietan.
- Esposizio-osteko profilaxia, difteriaren eraginpean dagoen pertsonal sanitarioa edota eramaile bezala identifikatutakoetan.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Haurdunaldiko lehen hiruhilekoa.
- Erreakzio neurologikoaren edota berehalako hipersentikortasun-erreakzioaren historia.
- Aurreko dosi baten ondotik erreakzio lokal grabeak dituzten pertsonak.

Txertaketa-pauta (MB bidetik)

- Lehen txertaketa: Hiru dosi. 2 dosi 4 asteko tartearekin, eta 3. dosia bigarrena jarri eta handik 6-12 hilabetera.
- Oroitzapeneko dosia 10 urtetik behin.

Kukutxeztula

Indikazioak

- Esposizio-osteko profilaxi bezala, infektatuen arnas jariakinekin edota berorien arnas traktutik datozen tanta handiekin (aerosolekin) zuzeneko harremana duen pertsonal sanitarioarentzat.

Profilaxia: ahotik eta 14 egunetan eritromizina administratuko da, 500 mg 6 orduero, edo bestela Trimetoprim-sulfametoxazol, 1 konprimitu 12 ordutik behin, espezioaren osteko 14 egunetan jarraian.

Sukar tifoidea

Indikazioak

a) Laborategiko pertsonala, sarritan *Salmonella typhi*-rekin diharduena.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Aurreko txerto-dosi batek, erreakzio lokal larria edo erreakzio orokorra eragin izana.
- Ty21a txertoa ez zaio administratu behar pertsonal immunokonprometituari.

Txertaketa-pauta

- Polisakarido kapsularra Vi: 0,5 ml-ko dosi bat muskulubarnetik. 0,5 ml-ko oroitzapeneko dosia, 2 urtetik behin.
- Inaktibatua: 2 dosi 0,5 ml-koak, azalpetik, 4 asteko tartearekin 0,5 ml-ko oroitzapeneko dosia, azalpetik, edo 0,1 ml azalbarnetik, hiru urtean behin.
- Indargetua (Ty21a): 4 dosi, ahotik, txandakako egunetan. Oroitzapen bezala 4 dosi, ahotik, txandakako egunetan, 5 urtean behin.

Biruela edo baztanga

Indikazioak

a) Egoera oso berezietan bakarrik erabiltzen da. Adibidez, txertoaren birus birkonbinatzaileekin kontaminatutako animaliak edo laginak zuzenean manejatzen dituen pertsonala, edo baita gizakia infektatzen duten ortopoxbirusekin (monkeypox, cowpox, vacuna, etab. bezalakoekin) dihardutenak.

Arreta-neurriak eta kontraindikazioak

- Haurduntza.
- Ekzema edo immunodepresio-egoera pertsonal sanitarioan edo bere famili kontaktuetan.

Txertaketa-pauta

- Dosi bat, orratz bifurkatuarekin administratua.
- Oroitzapeneko dosia 10 urtean behin.